

Nik, JESUS M^a MADINABEITIA JAUREGUI jaunak, Oñatiko Udaleko behin behineko idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGIAZTATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak, **2024ko ekainaren 27an**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

2.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: **Oñatiko Udaleko Hezkuntza departamentuak kudeatzen dituen programen kontura emango diren diru laguntzen 2026ko deialdiari dagozkion dirulaguntza eskaeren ebazpena (esp.: 2026ZDK00006)**

Alkatearen 2026ko ekainaren 2ko proposamenak honela dio:

“ Iñaki Akizu jaunak (Udal Hezkuntza Teknikariak eta batzordeko idazkariak) maiatzaren 29an egindako txostenean (CSV zkia: ESKUbe712ebc-468a-410d-988f-fa6f7c1888e7) honako proposamena egin du:

Espediente zk.: 2026ZDK00006
Interesduna: Oñatiko Ikastetxeak eta Guraso elkarteak
Gaia: Oñatiko Udaleko Hezkuntza departamentuak kudeatzen dituen programen kontura emango diren diru laguntzen 2026ko deialdiari dagozkion dirulaguntza eskaeren ebazpena
Sarrera erregistroa: 0000/000000

Gertakariak:

Lehenengoa.-2026ko maiatzaren 26an egindako Euskara eta Hezkuntza informazio batzordearen aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamenak:

“12.- Oñatiko ikastetxeen eta guraso elkarten diru laguntza deialdia: 2026ko deialdiari dagozkion diru laguntza eskaeren ebazpen proposamena onartzea.

Gertakariak:

Lehenengoa.- 2026ko urtarrilaren 29an ospatutako Udal Osoko Bilkurak aho batez onartu zituen Hezkuntza departamentuak kudeatzen dituen programen kontura emango diren diru laguntzen oinarri eguneratuak eta 2026ko diru laguntzen deialdia onartzea(espte zkia:2026ZDK00006)

Bigarrena.- Oinarri horien arabera Oñatiko Ikastetxeen eta guraso elkarten 2026 urteko dirulaguntza deialdiaren iragarkia 2026ko otsailaren 27ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (39 zeb.) argitaratu zen.

Hirugarrena.- 2026ko aurrekontu ekitaldiari dagozkion laguntzetarako, guztira ehun eta hamahiru mila eta zazpi ehun euroko (113.700 €) gastua baimendu da, 1 1224.481.321.00.01 2026 sailaren kargura.

Laugarrena.- Diru laguntzak eskatzeko epea 2026ko martxoaren 30a artekoa izan da. Zortzi diru laguntza eskaera jaso dira epearen barruan.

Gertakarien balorazioa eta proposamena:

Lehenengoa.- Hezkuntza sailak jasotako eskaerak aurkeztu ditu, eta oinarri espezifikoetan jasotako puntuazio-irizpideak kontuan hartuta aurre-balorazioa egin du eta batzordearen azterketara jarri da txostena.

Bigarrena.- Eskatzaileek oinarrietan eskatutako dokumentazioa aurkeztu dute eta guztiek betetzen dituzte dirulaguntzaren onuradun izateko baldintzak (5. artikulua),

Hirugarrena.- Oinarri arautzaileen arabera onuradun izateko baldintzak betetzen dituztelako, balorazioko txosten teknikoa aurkeztu du Hezkuntza sailak, eta diru laguntza ematea proposatu, ondorengo eran:

2.025-2.026 ikasturteko dirulaguntza proposamena.

Ikastetxeak eta guraso elkarteak.

1.- Ikasle kopurua, ekintza programa eta hizkuntza normalizazioa kontzeptuak.

Dirulaguntza

Guraso elkarteak	2.025-2.026 dirulaguntza	% 60
Gurelohe GE	1.456	873,60
Oñige GE	422,5	253,5
Ereiten GE	2.261	1.356,60

Ikastetxeak	2.025-2.026 dirulaguntza	% 60
Txiki-Txoko haurreskola	470	282
Oñati BHI	10.488	6.292,80

ESKUDc59f5c6-6cc5-4998-9536-7116d06555a8



Urgain Herri Eskola	12.280	7.368
Elkar Hezi	24.721	14.832,6
Txantxiku Ikastola	43.344	26.006,40

Guztira: 95.443

2.- Natur Eskolaren erabilera kontzeptua.

Dirulaguntza zerbitzutan

Ikastetxeak	2.025-2.026 dirulaguntza zerbitzutan
Txiki-Txoko haurreskola	0
Oñati BHI	1.800
Urgain Herri Eskola	5.436
Elkar Hezi	1.566
Txantxiku Ikastola	8.334

Guztira: 17.136

Guztira dirulaguntzatan: 95.443

Guztira zerbitzutan: 17.136

ESKUDc59f5c6-6cc5-4998-9536-7116d06555a8



GUZTIRA onartutako dirulaguntza:112.579

Honekin batera, oinarrietan ezarritakoari jarraituz, jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela 1 1 1224.481.321.00.01 2026 diru atalaren eta bere lotespen mailaren kargura.

Laugarrena.- Hau horrela, dirulaguntzen ordainketa honela bideratzea proposatzen da:

- *Programa honen kontura onartutako dirulaguntzak bi modutan ordainduko dira: Ikasle Kopurua, Ekintza programa eta hizkuntza normalizazio kontzeptutan 1 puntuan onartutako diru laguntzak bi zatitan ordainduko dira: % 60 ebazpena eman eta handik 15 egunera eta gainontzeko % 40 urteko memoria aurkeztu eta onartu ondoren. Likidazioa Tokiko Gobernu Batzarrak onartu beharko du.*
- *Natur Eskolaren erabilera kontzeptuan 2. Puntuan onartutako dirulaguntza zerbitzutan gauzatuko da, ez dirutan.*
- *Eskatzaileak oinarri orokorretan eta espezifikoean zehaztutako betebeharrak bete dituztela eta derrigorrezko agiriak aurkeztu dituztela egiaztatuko du Hezkuntza sailak zuriketa epean. Zuriketa egiteko formulario normalizatuak (III. Eranskina. Diru laguntza justifikatzeko orria. ekintzei buruzko fitxak) Oñatiko udalaren diru laguntzen web atarian eskuratu ahal izango dira, eta irailaren 30erako aurkeztu.*

Bosgarrena.- Aurre-ebaluazioa eta balorazioa bere egin eta onartu ditu Euskara eta Hezkuntza Batzordeak, eta proposamena ebatzi ondoren, Organo Eskumendunari, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeari, aurkezturiko taula hauek onartzea eta dirulaguntzen ordainketa bideratzea proposatzen dio."

Hau guztia, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:

30.2 artikulua: *"Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiria edo diru-laguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira."*

34.3 artikulua: *"Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da diru-laguntza, diru-laguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.*

Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, diru-laguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da."

Halaber, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere 3. Artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratortzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Azaldutakoagatik, Euskara eta Hezkuntza informazio batzordearen onetsiarekin, Tokiko Gobernu Batzarrari honako hau proposatzen zaio:

Lehenengoa.- Euskara eta Hezkuntza Batzordeak egindako Oñatiko ikastetxeen eta guraso elkartearen diru laguntza deialdia: 2026ko deialdiari dagozkion diru laguntza eskaeren ebazpen proposamenean zerrendatutako eskatzaileei diru laguntzaren onuradun izaera berrestea, 2026ko diru laguntzen deialdia ebaztea eta 112.579 €-ko gastua baimentzea, goian aipatutako xehetasunekin, 1 1224.481.321.00.01 2026 diru atalaren eta bere lotespen mailaren kargura.

Bigarrena.- Oñatiko ikastetxeen eta guraso elkartearen diru laguntzen 2026ko deialdiari dagozkion diru laguntza eskaeren ebazpena onartzearekin batera, 1 puntuan onartutako diru laguntzaren %60a ordaintzea eskatzaile bakoitzari – lehen taulan zehaztutako diru kopuruak alegia. Dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla eta diruz lagundutako ekintzak benetan egin direla agiri bidez egiaztatu behar dute, kontu zurigarria aurkeztuz 2026ko irailaren 30a (barne) baino lehen.

Aurkeztutako justifikazio aztertu eta egiaztatutako du Udalak.

Hirugarrena.- Ebazpen hau laburtua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea. Argitalpen honek banakako jakinarazpena ordezkaturko du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik. Interesdunek Oñatiko Udalaren webgunean (<https://www.xn--oati-gqa.eus/eu>) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

Laugarrena.- Dirulaguntza hauen onuradunak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.

Bosgarrena. Abenduaren 9ko 19/2013ko Gardentasun Legeko 5.4 artikuluaaren arabera dirulaguntza hau argitara ematea Oñatiko Udaleko web orriko gardetasun atarian

Seigarrena.- Erabaki hau kontu-hartzaileari, diruzainari eta hezkuntza teknikariari jakinaraztea.”



OÑATI
dabilen herria

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko go-bernu batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazi geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikulua arabera.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.

Oñatiko Udala
Foruen Enparantza, 1 • 20560 Oñati
tel: +34 943 78 04 11 • onati.eus



EKS | CSV: ESKUdc59f5c6-6cc5-4998-9536-7116d0655a8



Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=05910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=05910>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026ZDKO0006-TGB ziurtagiria/JGL certificado (OÑATIKO UDALA)